

Langabezia segurantzako ituna onartu dute sindikatu gehienek

CGT eta CGC sindikatuek ez diote beren onespina emanen

CFDT eta FO langile sindikatuak ontzat hartu zuten ostegunean langabezia segurantzarako hitzarmena enpresarial elkarteekin izenpetzea. CFTC sindikatuak ere bere oniritzia jakitera eman behar luke datozen egunetan baina CGTkoek aldiz, iaz bezala, ezetz borobila eman diote komenio honi.

A.S. / BAIONA

Hala ere, sindikatu gehienak alde jarri direnez gero, hitzarmen obratua izango da 1992. urte bukararaino eta epe horretan 8.000 eta 10.000 milioi liberaren bitarteko (144.000 eta 180.000 milioi pezeta) diru kopurua sartuko du UNEDIC langabezia segurantzako kutxan.

Diru multzo horretara heltzeko, enpresari eta baita langileen kotizazioak zertxobait igoko dira. Bestalde, berrogeitamar urtetik gorako langileak UNEDIC kuxari konpensazio bat eman beharko diote. Aurretik ere neurri hau bete izan da Delalande deritzan araudi bati esker. Honen arabera, berrogeitamabost urtetik gorako langileak kanporatzen dituen enpresa batek, hiru hilabeteko soldaten diru kopurua eman behar dio langabezia segurantzako kutxari. Datorren urtean gauzatuko den komezioak, beraz, neurri horren betetzea zabalduko du, batez ere adinaren muga jaitsiz.

Hain zuen ere, langabezia gertatzen diren pertsona adinekoen egoera hurbilagotik jarraituko du segurantzako kutxak. Bakoitzen kasua lau hilabeteko ikertua izango da eta lan berri baten bilazera bultzatuko dira. Izan ere, erantzunik ez



Zortzi mila milioi libera izango dituzte langabetuek Segurantzako Kutxan.

Hiru milioi langabetuetara hurbiltzen

990 urtean langabeziako prestazioak 109.800 milioi liberako diru kopuru batetara iritsi ziren (1.977.400 milioi pezeta) Frantzia. Gogoratzen ahal litzatekeenez, joan zen martxoan plazaratuak izan ziren zenbakien arabera, 2.204.000 pertsona zeuden langabetuen zerrendetan agertzen (1.245.000 emakumezko eta 959.000 gizonezko).

Alabaina, azken hilabete guztietan egoera larriagotu egin da, azken azterketen arabera, 264.000 pertsonak beren izena eman bait zuten urte hasieratik gero. Honela, Frantzia hiruen artean langabetu kopururik hurbiltzen ari da eta industriadun herri handien artean langabezia maila goreneko hirugarren lekutik bigarrena pasa daiteke.

ematean edota formazio proposamenak ukatzen, langabeziako saria jasotzen duenak dirulaguntza hori gal dezake.

Lasteriazko neurri horiek ziren, besteak beste, ezinetsizkoak CGT

langile sindikatuarentzat eta puntu berezi honetan berarekin bat egin du CGC goi kargudunen elkarteak, bi horiek bait dira 1992. urteko langabezia segurantzako hitzarmena onartuko ez dutenak.

Arraza txuria hobe dela uste du ikasle eta irakasleen % 40k

DONOSTIA

Iritzi arrazistak oso hedatuta daude Espainiako ikasle eta irakasle ez unibertsitarietan. Tomas Calvo Antropologia katedratikoak idatzitako 'El racismo que viene' ('Datorren arrazismoa') liburuak jakitera eman duen inkesta batek dioenez, ikasle ez unibertsitarien % 46 eta irakasleen % 33 arraza txuria gainontzeak baino hobe dela uste du.

Octavio Granado senadore sozialistak aurkeztu zituen Senatuan inkesta honen datuak, hezkuntza kompetentziak dituzten elkarte autonomikoen arrazismoaren aurkako kanpaina has dezaten antolatutako debatean. Mila bostehun ikasle eta irakasleen artean egindako inkestak erakusten duenez, galdeketauen % 40k uste du ez dela komenigarria «beste arraza edo erlijioeko pertsona batekin ezkontzea edota beraiekin

harreman sakona izatea». Goi Ganbaran bildutako senadore apurrek aho batez onartu zuten ikastetxeetan arrazismoaren aurkako kanpaina. «Programa honen helburua jarrera arrazistak bazterzea da» dio mozioak, «arrazismoa, elkartasunik eza eta beste etniako jende edo gaixoen diskriminazioa amaitu dadin».

Jose Antonio Torrontegi EAJko ordezkariak arrazakeria baztertzeko programa gizarte osora zabaltzea proposatu zuen. Senadoreek honetan ere, aho batez eman zioten baietza jeltxidearen eskaerari. «Guk inork baino gehiago pairatu dugu besteen bazterketa» esan zuen Torrontegik eta Eusko Jaurlaritzak «haur ijitoen integrazioa aurrera daraman politika» azpimarratu zuen. Horren erakusgarri, Gasteizko Gobernuak hezkuntza erregimen orokorrean integraturik dituen 250 haur ijito daukela aipatu zuen.

CCOOk greba orokorra egingo du Abril txostena aplikatzen bada

MADRIL

CCOOk greba orokorra antolatuko du Espainian Gizarte Segurantzaren erreforma planteatzen duen 'Abril txostena' indarrean jartzen bada, atzo Antonio Gutierrez sindikatuko idazkari nagusiak prentsaurrekoan iragarri zuen. «Jubilatu eta pentsionisten prestakuntzak kaltetu eta osasun publikoa pribatizatzen duen edozein erreforma, nahikoa izango da greba orokorrerako deialdia egiteko» esan zuen Gutierrezek.

CCOO sindikatuko buruak hitz gogorak izan zituen CEOE patronalarentzat, «azken bost urteotako negoziazio kolektiboa Cuevas jaunaren nahien gainetik geratzen denez, bere burua zalantzan jartzen duelako».

GESTIO TXOSTENAREN ONARPENA CCOOren V kongresuan parte hartzen

ari diren ordezkariak baietza eman zioten Antonio Gutierrezen gestio txostenari. Gutierrezek botoen % 89 inguru eskuratu zuen eta 27 ordezkariak besterik ez zuten errefusatu sindikatuak azken urteotan egindako politikaren txosten ofiziala. Izquierda Sindi-

cal ez onartutako korronteko ki-deak —Izquierda Ohiaren aldekoak— eta PCPEkoak abstentitu egin ziren. Abstenzioaren arrazoiak zera izan da «Gutierrezek ez duela Kantauri aldeari elkartasuna adierazteko greba orokorrerako deialdirik egin» azaldu zuen Joaquín Nieto korronte honetako buru eta Ingurugiro arduradun hautatu berriak. Ezezko boto gehienak, zuzendaritzan ordezkotasun handiagora eskatzen zuten emakumeenak izan ziren.

Gutierrez berari jaurtitako kritika guztiak eta egindako proposamenak bere gain hartzen zituela adierazi zuen. Idazkari nagusia kongresu honetan oposizio lana egiten ari diren Izquierda Sindicalen kideei zuzendu zitzaizkien «CCOOn gustora egotea» eskatu zion Gutierrezek eta bere izenarekin bat egiten zuela ziurtatu ere, «herri honetan CCOO delako ezker sindikala». Espainiako bigarren sindikatuko buruak ukatu egin zuen Morenoren dituen ezadostasunak «langileek ulertzen ez dituzten aristokraten arteko borroka direnik» Kataluniako idazkari nagusiak leporatu zion moduan.



Antonio Gutierrezen txostenak kongresukideen onspina jaso zuen. EFE

Kargutik bota dute Huescako espexeko zuzendaria

HUESCA

Bi gaizkile arrakatsuri ihes egiten utzi ziren Huescako espexeko zuzendaria kargutik kendu zuen atzo Gartzelako Idazkaritza Nagusiak. Azken erakunde honen arabera, «hasieran oneratik Jose Otalek ez zuen oner eraman bi gaizkileen motin saioa eta ondorioz ihes egin zuten gartzelatik Jesus Castillo eta Carlos Manuel Estevezek». Beste gauza batzuren artean, gaizkileei bere kotxea uztea leporatu dio Gartzelako Idazkaritzak Jose Otalari. Orduki hona desagerturik dira gaizkileak, Gargardian Zibilak beren arrastoa Katalunian galdu bait zuen.



BILBOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

OLENTZERO 91

Bilboko Udaleko Kultura eta Turismo Sailak jakinarazten du Olentzeroa kantatu eta antzezteko asmoa duten bilbotar taldeek dirulaguntza eskatu ahal izateko ondorengo baldintzak bete behar dituztela.

Interesaturik daudenek eskari-orka bete beharko dute Udaletxeko Euskara Sekzioan (1. solairua) eta Erregistro Orokorretik sartuko, abenduaren 9tik 13ra, eta bertan ondorengo datuak zehaztu

beharko dituzte: ordua, ibilbidea, taldeko kideen kopurua eta bestelako bereiztasunak, baleude. Aipatutako eskari-orkan espreki adieraziko da Euskara Sekzioko dela.

Denek jakin dezaten adierazten da. Bilbo, 1991ko abenduaren 5ean

KULTURA ETA TURISMO SAILEKO ORDEZKARIA

